Euzkadi

GURE IKURRITZA

"JAUNGOIKUA ETA LEGE-ZARRA"

Aurreko idazkian esate genduan, irakurlea, "Jaungoikua eta Lege-Zarra" dala Euzko-Alderdi-Abertzaliaren ikurritza, Sabin gure Irakasle ezin astuak ezin obeto irazi edo sortutako ikurritza; eta "Jaungoikoa"-ren izena daramala Euzko-Alderdi-Abertzalia'k ezer baño len, bere ikurritzean: JAUNGOIKOTARRAK LENAGO GERALAKO, GIZON ETA EUZKOTAR BAÑO.

Baita ere esaten genduan aurreko idazkí artan: Eleiza'ko jakintsuen iritzi bidez gizona eztala gizon gorputza'gatik, ezta gogo utsa'gatik ere, baño geiago dala gizon gogoa'gatik gorputza'gatik baño.

Gogua (animea) Jaungoikoa'k bakar-bakarrik irazia dala adierazten digute Eleiza'ko jakintzak, eta gogo ori ama'ren sabelian sortuaz bat irazia dala. Gorputza esta ba iñolaz ere gogua baño len, ezta gogua ere gorputza baño len. Beraz ezdago aldi-lenengotasunik, baño gogua gorputza baño askoz geiago zan ezkero, izakeraz gorputza baño lengo da gogua. Au onela izanik, gizonak baño len Jaungoikotarrak gera, izakera-lenengotasunez.

Aristóteles eta Galena-aldietan esaten ei-zan gorputza gogua irazi baño, berrogei edo larogei egun lenago sortutzen zala. Gaur, egitzat artzen ezdan esan ori, egia ba'litz ere, elitzake gizona Jaungoikotarra baño lenago gizon izango, orrelako gorputza eztalako oraindik giza-gorputza, gorputz utsa baizik. Jakintsuak diozkuen gorputz er aedo *forman corporeitatis* izango luke, ez ordea giza-era edo *forman homines*.

"Geldi or" erantzungo dit biar bada norbaitek, eta geituko dit: "Jaungoikotarrak gera, ori bat, gizon eta euzkotar baño len, baño *katoliko* baño len gera euzkotar eta gizon". Geldi or, diñotzut nik ere, aurkalari maite orri: Ezda berdin (igual) egitez *katoliko* izatea ta biarkunez izatea Egitez, bizi geran guziok gera aldi-lenengotasunez katoliko baño gizon naiz euzkotar, jaio baño lenago ugutzatuak ba' giñake, ordutitxek egizko.

Uzkutz edo erlijua izan biarko gendike eta egizko Uzkurtz bakarra orokorra edo *katolikua* dan ezkero, una artatik nai ta nai ez katolikuak izan bear. ¿Ludira sortu ta berialaxe ugatzatuak (bataiatuak) ezin izan gerala ta ugutzik gabe, gogogutza (bautisma flaminis) naikua dalako. Deibatz edo Ama Elaeiza Santa'ren gorputzekuak ez giñake izango, baña bai Doibatz-gogokuak. Beraz, KATOLIKUAK.

Biarkunez (obligaziñoz) *katoliko* ta gizon edo euzkotar ere izan gindezke aldi-lenengotasunez. Ez ta, ba, askok uste daun bezin argi dagon gauza, euzkotar gerala uste izatia *katoliko* baño lenago. Eta onen urrengo urko-maitetasuna dator.

Urko edo *prójimo* maitetasuna biarrez ama degu euzkotarrak, Jaungoikozko egipena dalako. Urko-maitetasunak, baña, gure antz geiago duanarentzako lanen izan biar du, euzkotarrantzat izan biardu, gurekin bat edo batago dalako.

Antz edo batasun ori izakera-arauz, obeto esateko, odolok dakarrena da. Beraz, gure odolekua, gure abendakua, urkuago, eta izakera-arauz maitiago ere izan biar degu.

Guk, baña, zañetan daramagun odola ez degu ikusten; baña odol eta abenda'ren ezaugarria izkuntza-da, eta orrengatik, esaten dute ludiko jakintsubak (Sabin berberak ere bai) ele edo izkuntza dala abenda eta Aberria'ren gogo ta bizitza. Esaugarri aberkoi au adierazten digu gure ikurritzean bigarren mallan daramagun LEGE-ZAR itzak.

Eta ez ori bakarrik; zerbait geiago ere adierazten digu LEGE-ZARRAK. "Lege-Zarra" euzkeldun askorentzat itz itxusia edo da; baña oso oker daude orrela uste duten euzkotarrak, gure abendatar anai-maiteak.

"Lege-Zarra"-k ez du esan nai euzkotarrak antxiñako gure asaben gisa "abarkekin"-da ibilli biar dagunik eta bultzian eta "automobillean" ibilli biar ez degunik, eta berezibil oien ordez ankaz ibilli biar degunik, ez; ori ez.

"Lege-Zarra"k ezdu ludiko aurrerapenen atserapenik adierazten; oso bestera baizik, eta "Lege-Zarra" aldeztu biar degu euzko-seme guzi-guziok Euzkadi'ren zoriona irizteko; bere semeak Euzkadi'ko ondasunak gaur baño osoago ta obeto gozatu al-izan daiguzen, eta bultzi ta beresebil ordez "aideplanuan" ibilli al-izan gaitezen.

Orra or, ene irakurlea, "Lege-Zarra" no la ez dan ludiko aurrerakutz edo "adelantuen" etsai edo aurkaria, aldezle baizik.

"Lege-Zarra" itz onetsia da euzkotarrentzat, eta ondo baño oberritsarria Arana eta Goiri'tar Sabin'ek Euzko-Alderdi-Abertzalia'ren ikurritzean.

"Lege-Zarra"-rekin gure Aberri-jabetasuna adierazten degu; "Lege-Zarra"-rekin gure eskubidien zergaitia agertzen degu; "Lege-Zarra"-rekin euzkotartasuna azaltzen degu; "Lege-Zarra"-rekin euzko semeak Euzkadi'koak gerala aitortzen degu; "Lege-Zarra" rekin Euzkadi 1839'garren urterarte euzko-Aberria zala adierazten degu; "Lege-Zarra"-rekin urte orretararte bezela orain ere gure Aberri-pean bizi nai-degula agertzen degu; LEGE-ZARRA'rekin atxipez edo *engañuz* kendu edo ostu ziguten Aberri-jabetasuna atzera biurtu daiguela eskatzen degu; LEGE-ZARRA'rekin euzkotarrak ez degula atserritarren bearrik gure erriak, gure Aberria, zaitu eta *gobernatzeko* esan nai-degu, azkenik, LEGE-ZARRA'rekin argi eta garbi adierazten degu beste errietako abendakidiak bezela guk, euzkotarrak ere, Aberri bat-bakarra degula: EUZKADI. Eta bere jabetasuna atzera bigurtu daiguela euzkotarreri, EUZKADI, GEURIA DALA-TA.

Euzkotarra: Orra argiro adierazi zer esan nai-duan Euzko-Alderdi-Abertzalia'k daraman ikurritzak: "JAUNGOIKUA ETA LEGE-ZARRA"-K.

Bere aldez lan dagigun bada, atseden gabe, euzko-seme guziok, izan gaitean egun batean gure Irakasle Sabin'ek esan zuan bezela: "GU EUZKADI'RENTZAT ETA EUZKADI JAUNGOIKUARENTZAT".

ZELETA.

ERIJETATIK

MAÑARI

BASO-IBILKETA

Igazitako illaren 224'an, zazpiretako mesa ostian, emeko neskatil pillo bat basoibilketa luze bat egiñez, Baltzola'ko artadulo entzutetsua ikusten juan gintzazan. Eguraldi argi ta ederraz, bide zidor eta aldatzak umore oneko igaro genduzan.

Batak au, ta bestiak ori, beti lez, barriketa ugarijaz txor-txor giñoazala, uste baño len "Aita-Kurutzeko" basotxono txukunera eldu gintzazan. Ermita aretan, apur bat atsedenduaz, aldi laburrian otoitz egin gendun. Eta apaingarritzat gebazan lora politak, Gurutzaldua'ren oñetan maitero opaldu genduzan.

Otoitz ostian, ermitako orma zuri sendoetan, geure oldozkunak izki urdiñez onan irarri ziran.

"Zure bijotzak maitasun eztija darijo; Zure abotsak durundi gozua dagik. Beko aratak begoz ixilik."

"Neke-ontziko lorria dopaltsut. Maite zaitut".

"Zorijonekua, aizkidiak eskertxarrez mindu nindun eguna. Larri-aldijan, Zeuganatzen ikasi neban da".

"Maitasun ixilla... bijotzaren zaurija... Zeure guramena egin begit". Eta abar.

Oldozkunok idatzi ostian, Iñungane mendira igo gintzazan. Mendi aretan, aize ozkiroan atsegiñez gengozala. Arranatx aldetik Arteaga mutilla abo-soñuari ots politak eragiñaz urreratu yakun. Arteaga'k, mendizale bizkorra ta sentzunduna dalako, emen inguruko atx-mendijen barri iñok baño obeto daki; orregaitik bera lagun gendula Baltzola'rantza, mendija bera, abiju giñan. Gure neskatuak, bide guztijan, onango bertzo zarrak polito abestuaz, bazterrak alaitzen ebezan.

Mendi andi bat dago
Bijoren erdijan
Eztula alkar ikusten
Nai dogun guztijan.
Zu ikusi bagarrik
Daukodan eguna,
Pentzetot gaba dala
Aren da illuna.

Bertzo onekaz ta abar, Baltzola'ko artadulo itzalera, beingoan eldu gintzazan. Eta eguerdi inguruan ango landatxuan su andi bat egiñaz "lamiña-bazkarija" egin gendun. Burduntzijan erretako urdai ta bakainkakaz sabelok ederto bete ziran. Bazkari bitartian, soñu ots politak ederto alaitu genduzan. Eta ipuin zale dan baloi, labatik-ara'ko ipuiñ barrijak kontauaz, aldi eder bat igaro-erazo euskun.

Bazkal-ostian, danok batera, artzulua ikusten juan giñan. Bide-ezaugarri, arazi txorta askogaz egiñiko soka luze-uze bat eruan gendun; baita, bakotxak argi on dana be. Barrurantza poz-pozik giñoazan. Eta eskuetako argijak artzuloaren orma sendo apainduetan dizdira politak egiñaz, koba barrua, lamiña-biztoki zoragarri biurtuaz, gauza guztijari eder eretxita, gelduta lez esaten gendun.

—¡Oi, ze gauza polit eta txukunak dagozan! Arri-pitxi asko dago bertan.

—¡Ene! Erdueze danok. Ikusgarririk iñun bada emen dago ta.

—Begiratu, or dingiliz dagon arri-dindirri politari; urre ta zidarrez egiñiko argi-ontzi miragarri bat dirudi ta.

—¡Ekarri, ekarri malluketia! Ots egin eban batek poz-pozik. Pitxi orregaz neu jaubetu biar naz da. Ta argi-ontzi orretan, neure bijotzeko maitasunik bero ta gozoenaz argi iraunkor bat txiotuta Andoni deuna'ri opaldu biar deutsat eta. Bezutzaren ordañez baña, lorak eta lorak eskatuko dauteaz... Goi-iñuntzez bustitakuak...

Onango barriketakaz genbiltzala, aurrenengo joianak obar andi bat egiñaz esan eban.

—¡Bazatoze ala? ¡Gogaikarrijok!

"Oraintxe guaz" esanda, danok jarrai gendun bidian; ta aurrera jarraiaz, leza sakon bildurgarri bat aurkitu gendun. Toki bakan aretan, sai antzeko txori andi batzuk geure buru ganietan egazka asi ziran. ¡Une itzala! Gero toki artatik, beste bide batera joaz, eta soka luzia amaitu arteraño jarraiaz, naiko zala-ta, berialа kanporatu giñan.

Noba'tik urtenda, San Lorentzo basotxono'ko txiliña entzun gendun; eta txiliñ otsera, ermita aretara beingoan eldu gintzazan. Bertan, ogetamar bat lagun eleizkizuna egiteko gertu egozala aurkitu genduzan. Eta mutil bateri itandu geuntsan.

—Ze eleizkizun daukozue?

—Mayetzeko lorak.

—Abestijakaz?

—Beste domeka guztijetan bai; baña gaur errosarijua utsik. Neskatilla kantarijak Dima'ko erromerira igaz egin dabe ta

Agurtza, "Zubero"ko Julen gizonak abade baten itzal eta egokitasunaz errezau eban. Eta gizon areri biar dan itzalaz baimena eskatuta, Baltzola'ko neskatillen ordez, Neskutza'ren aintzaz abesti politak abestu genduzan. Eta Arratiarrak adi-adi entzuten poz-pozik egon ziran. Gero, eleizpian, skuleko arigurijak egin euskubezan, Gizon batek ben (serijo) onan iñoan.

—¡Arrayua! Ederto kantau yuek! Onek Mañaritarrok zentelak yaukiezak... Istrusiñue yaukiek, istrusiñue...!

Onango berbak entzutian ez gintzazan asarre izan Edozetara be, goralbenak, otaabarrezko igortzijak baño pozago artzen dira. Gero, Arteagak, abo soñu bat jota, ermitako landatxuan (janzki baltzdunok ezik) enparauok erromeri garbi bat egin eben. Eta ango yentiak txalo ugarijakaz saritu be. Azkenez, Baltzolar begikuar agur samurrak eginda gero Oba'rako bidia artu gendun. Oba'n be, arrera andija egin euskuban. Eta aguretxo batek itandu euskun.

—Ze erreplubika dakazue?

—Guk ona—erantzun geuntson.

—Gu ba "derecha"k gara.

—Gu be ba eskumatarrak gara, Adarbuztendunak, ezkara beintzat—gutariko batek erantzun eutson.

Geure barriketakaz barre apur bat eginda gera, San Andoliñ eleizatxua ikusi gendun. Oso polita da. Baita auzo-eskolak ikusten be, juan gintzazan, Bide-ertzian brizkan ebiltzan andra batzuri baimena eskatuta eskolaratu giñan. Ikastola aretan Oba'ko gizon batzuk, auzuneko gauzaren batzuen erabagijak artzeko edo, batzarrian egozan. Eta oarkabe egin gendun asartasunaz lotsatuta, alde egitera giñoazan. Baña, tira, gizon arek, geure asartasuna onez artuta, eskola ta inguruak ikusten lagun du euskuben. Eskolak atsegin izan yakuzan; txukun eta garbi egozalako.

Gero Obatar guztijari agur maitekorrak eginda, Iñungane mendira igon gintzazan. Gallur aretan, illuntzaroko ozkiro atsegingarrijan "sorgin-aparija" egiñaz Arratia guztijari bijotzez agur egin geuntson. Eta. Arranatxian, sorgin zantzo itzalak egiten eban anotsak ikeratuta, danok ixil-mixilka mendija bera jatzijaz, beingo baten etxeratu gintzazan.

MAÑARIKO.

DONOSTIA

BIGARREN ITZALDIA

Sutsu ta egokia Aranzadi'tar Josu abertzale azkaroaren itzaldia Itzaldi baño lenago E. Etxea aretoan non auka jarrietzegoan guzi guzia bete zan.

Arantzadi'k entzun zituan txalo otsak ondo adierazi zituen zein atsegin izan zizasgun Iruña abertzale unen itxalora.

Itzaldi aurretik jaupari zintzo ta abertzale sutzu dan Laborda jauna abeslari bikair bikañak "El Caserio"-ko, "Txikito de Arrigorri",ren doñu edo eresian. "Aitzondo"-k, "Argia"-n argitaldu dituen itz neurtu eder alek abestu zituan.

¡¡GORA EUZKADI!!

Sasoi batian azke
Bizi zan Euzkadi,
Gure asaba zarrak
Leial eta garbi;
Aberria naj degu
Geuretzako jarri,
Ortarako lagundu
Daiogun alkarri.

Euskaldun seme danok
Bear degu batu,
Lengo gorroto danak
Utzi ta alkartu;
Aberriko izkuntza
Gogotik indartu
Jainko ta Lege Zarra
Guztiok eskatu.

Gernikan dago gure
Zugaitz onetsia,
Maite degu berekiñ
daukan gurutzia;
Eskenduke nai zugaitz
Ori igartzia,
Euskaldunak nai degu
Ongi gordetzia.

Geuretzako nai degu
Geuria dan gauza,
Besterenaren billa
Beintzat ezgabiltza;
Aldeztuko degula
Eman daigun itza,
Ortan izango degu
Jaunaren laguntza.

Euzkadi'n Jaungoikua
Nai degu lenbizi,
Lengo aurreko zarren
Legiak ikasi,
Eskerreko aldera
Ez iñor bereri,
Aixa jarriko gera
Lege zar da guzi.

Ernai jarria dago
Euskaldun batzarra,
Ongi aldeztutzeko
Gernikako izarra;
Guretzat izan dedin
Len gendun bazterra,
Gora Jaungoikoa ta
Gora Lege Zarra.

EUSKO UDAL BATZARRA

Gipuzko B. B.'en aginduz, Donostiko E. Gaztedia, gipuzkoar abertzaleak Iruñako batzar ortara juan ditezen bultzia eratzen arida Ontarako bertan juan naidutenen izenak len bai len biar eztuzu Batzokitan izen erreskadak iriki ta Euzko Gaztedi ontara bialtzia on litzasguke. Zuen zai gaude ba ondo egitendan gauzak beti ondo ematen du eta.

Donostiko E. Etxean izendia iriki ta aurrera dijua.

¡Abertzaleak Iruñara! ¡¡Aupa!!

ATARENE.

Euzkal-Orrian iragarkiak ipintea, euzkaldunen artean eta saleroslean artean alkartasuna eta ondo-gurea zabaltzea da.

AZPEITI

EUZKEL IZENA

Orbegozo'tar Alexander ziñesgotzi abertzalearen emaztea dan Astigarraga'tar Jon'ek izan duan aur jayoberriari ugutzatzerakean Iñaki euzkel-izen polita ezarri diote Aita-amabita Astigarraga'tar Erroka ta Gogortza'tar Laureana izan dira Ama-seniak onik daude. Zorionak, Alexander.

ERIOTZA

Jaunaren besoetan il da gaxotasun maltzur baten menpean denbora askoan egon ondoren Olaizola'tar Justo mutil on ta luistar zintzoa zana. Iletara oste aundia bildu da. Bere sendi naigaletuari laguntzen diogu atozkabe orretan ta izparringiaren irakurleak otoi bat daskaiogu zanaren gogo aldez (G. B.).

NERE TAMAL AGURRA

Agertu nai moke bero onen bidez Uri Buru Batzarreko lendakari jaun Cenaga'tar Modesta'ri bere izeberen eriotzgaitik.

Jainkoak bere altsoan dezala (G. B.).

AZALPENAK

Itsas basterretik nator. Zeruba urdin eguan eta urruneko printzetan oyal zurijak bailiran, ontzijak ikusten ziran. Nabari eguan zabala, urduri, barruko keska bat agertu gurean. Aberrijaren itsasua, itsaso gogorra da, ez emakumia. Aron dabiltz olatubak.

Baudelaire jaunaren olerkija agora eldu yat itsaso onen aintzinean:

Itsaso billa, beti gixon aske ori;
eure antzikurretzat daukok urdin ori.
Azal neurrige ortan badakusk gogua;
bera baxen garratza giriñen barruba.

Baña ezta or amaitu neure oldozketa. Itsaso orretan amaikatxu edesti zar, asaba edesti dagoz. Euzkoen obija ixan da zabal au. Or juaten ziran itzaso ziar geure arrantsaliak, eta kanpoko guztijai bildurra sartzen eutsoen. Gudari amorratubak ixan dira ezkuak eta Kantauri itsaso au.

Biok zarie ixilkor eta lañotsubak:
Gixon ori, nork dazauz eure eskutubak?
Itsasoi, ez dazauguz eure ondasunak.
Josita darozubez, ixilik barrubak...
Aspaldiz alan da-be, zarien etsayak!
Negar eta etsi baga, igaroz eundijak,
samin eta erijotza, zeuen atsegiñak:
Barrukari betikor, anai maite eziñak.

Orra zer diran euzkuak eta itsasua. Barrukari amorratubak, beti lortu ezin dabena jadetsi gurean. Arraunlari bulartsubak bere gain ibilli ixan dira. Eguzki galdatan, sutsu ta pizkor euzkotarrak jarraitu dabe bide urdin ziar.

Euzkadi'ren siaska dirudi itsasonek. Mendijak eta itsasuak alkarren antza dagerte emen. Mendijak arri bijurtu diran uiñak dira. Eta itsaso onen antzo dira euzko goguak bere. Artega dagoz azaletik, barneko zadorra gorde eziñik. Ekaitzak daukoz lantzen beiñian, eta orduban ondatu daro guztija.

Jopurik jasan ezin daben itsaso eta abenda. Gogo indartsubentzak egiñak dira, ez koldarrentzako. Iñoiz ikusi bako lurraldiak billa joyazan bertotik, eta baliak ezeze inglaterrako buru ulegorrijak atzemoten ebezan. Gaur ostera arraunlari txatxarrak gara, iñor dogu itsaso onen jaube.

Ikasi daigun jasan eziña bere olatubetan. Oneik eztira iñoren murroi. Eta bitsa jasoten dabe goraño, askatasun ikurriña balitzan. Euzko gogua, zer ikasi daukozu zeure itsaso orretan.

Itsaso urdiñetik nator. Guztija bakian eguan. Udaren laztana laprast yoyan zabalunian. Baña barnian zelako gudaketa eratuten eguan. Orra euzko abendaren altzuan egunotan gertauten dana.

Agur Kantauri itsasua, laster zeure jaube ixango gara. Bitartian jasan zeure aitzora datozen oron gorputzak Goguak garbituteko gai bazaraleko.

LAUAXETA

EZKONTZA

Igandez ezkondu ziran Artetxe'tar Joseba ta Gorostegi'tar Miren. Zorionak.

JUN-ETORRIAK

Zarauztik etorrita emen agurtu degu Juaristi'tar Pantzeska luistar ona.

Gazteiz'tik azterketak egin ondoren etorri da Azpiazu'tar Iñaki jaupalgai ta euzkeltzale sutsua.

ESKON-IBILLALDITIK

Biurtu dira Elustondo'tar Kepa ta Aramendi'tar Miren bikote zoriontsua.

ITZALDI ABERKOIAK

Azkenian eldu da azpeitiar abertzaleak ainbeste denboran ditxarogun eguna. Bi illabete ba dira itzaldi aberkoiak ematia oldoztu genduala, baña baimenik etzala irixten da, oraindaño Aberri-itza entzuteko zorunik gure txoko maitean ez degu izan.

Datorren igandian izango ditugu itzaldi oyek. Itzlariak nortzuk izango diran, zer ordutan ta ostentzeko zertzeladak urrengo idazkietan emango ditugu.

Urola ibarreko abertzale orok gertatu guziak zenen ikurriñagaz Azpeiti'ra igandian etortzeko.

Azkoitiarrak igasitako igandez Zeztuara bialdu zenuten bezelaxe bialdu gure erritxo onetara ere zeuen ikurriña andereño batek eskuetan duala beste guzian ikasbidetzat izan dedin.

KIROL.

ALBIZ (MENDATA)

ERRIKO GORA BERAK:

Len aituten emon nenban moduan igaro dan igandean, erri onetan be beste leku asko tan legez, egon ziran siñigotziaren auteskundeak, igarorik bake aundijan. Bertan zertuk gausa gertau siran oso gitsik jakingo dituaselako aituten emon biardeu tsudek ainbak laburren.

Emen orain artian egon gara bi satitak edo aldertitan abertzaleak da bakalduntarrak (erregetarrak) onek au jausi sanean indarra nora ara juan siran euskiak geijen serotuten daben lekiera (erderaz esanik tzaqueteros) da orain dauke, arpegia esateko ze eurak abertzaliak izan diriala, nik orreri erantzuten deutsek ez isan diriala ez izambe ez diriala egingo. Da orain gertauda eurak abertzaleak diralata, gugandik igas egitia gure lagunik aundientzakuak euki gendua senak da gu erdi bakarrik istia, ez dotzo ardura geijago juaten badabe suek baño askoz geijago garata, olango gizonak dira saldu erosian dabil zan aberiaren antzekoak nok geijago agindu orañe juan gaur berba bak eta biar bestala, buruak andijak baña gomutamenak txokorrak... gizonak gizon danak berbia ausi baño lenago il egin beardeu, prakak bai baña gizonikez, antziñekuena prakan prakan ez daguala gizona, da egia berena, arek igerri eutzan.

Erri onetan gizon asko sartzenda biar ez leuken gauzetan, da askotan ondo urtenik, baña gitzian uste danean eurak bape igarri bage sartuko dira osin (poco) sakonen baten señetan urten ezinda gelditukо diran itota.

Etxe bataren indarraz
Beste asko dabiltz torraz
Lagunak igas egiñagai tik
Beste asko etorriko dira erraz.

ALBIZ ERROTAKO.

RINCON DE SOTO

GORA EUZKADI BETI

¡Ze egun andia Bermio'n jazo dana igandian Euzkadi'rentzat! aulan-aulan erantzun biar'da Aberria'ren dei-ari irrintzi erasarik.

¿Oraiñ ze esango dabe "bloke"-kuak? ¿ostera be nastiakaz irabazi dotziela Euzko Abertzaliak? etxagozak makalak.

¿Da guk ze ezango dogu ba eurek egin ditxuzan atxipeai oraiñ? benetako Euzkoa-legez dana parkatu; emetiko egizko Erkaldarrak parkatu'ten dotzoelaz euron arerioai.

Baurrengo'rako uri orregaz txantxetan ibilli barik, oz dekoe onuon bat bezte beiñ olakorik ez egiteko. Ze uri orren atsegiña, ez da (Dictaduria) (Democracia) baño. Banik uste dot Euzko Abertzale alderdian bai dago la erri ori atondu'tako bezte (democraci), ta jakitun, aurrera ba gustiok bakian, da urren kontus ibill'.

AINTZA BERMEO'KO ANDREA'RI

Zubek zaria benetan Euzkadi'ren zaindari'ak, ¡aintze zuberi! ta zubek ume txikitxuari irakatzi biardetza-zuenak Euzkadi dala Euzkoen Aberria. Ta Zubek ostera-be uri orretan (Libertad, justicia y democracia) aurretik ipiñita erria jopotuten ez dotzazuenak itxi, da zubek emetik aurrera be, gixonak itxosotik dagozanarte erri-ori Zaindukoruenak !Aintza ba zuleri! ta Aberriaren onerako jarraitu bideorreri. ¡Agur! Bermeo'ko andrea ¡agur!

URKIDI.

YANTZA - ABESTIA-K

EUZKO-GAZTEDIEI

G.'TAR E'K.

Taloak erretako
Ona da parea,
Txomin agarrek dauko
Alaba parea.
Iketza zabaltzeko
Ona da larrina,
Zaltzeako idauko
Alaba zarrena.
Oraingo mutiltxoak
Bana binekoak,
Lapiko tapatzat
Alagalakoak.
Orain etorri yaku
Errire modea,
Txapel azulek eta
Bai meriñakea;
Txapel azulek eta
Barradun prakak,
Arratien idagoz
Mutillek galantak.
Sartan da burruntxalu
Arroa patela,
Arratieko neskak
Guztiek alperrak.
Asi Bilbo zarren eta
Kanpanzar-eraño,
Amaka neska-zarko
Bayeok oindiño.
Gora gora begitu,
Lañoak agiri,
Orrako mutilorrek
Tontoa dirudi.
Amar amaiketatik
Eguzki beroa,
Ama buruen min dot
Ni etzera noa.
Dingilin dangoa
I ezaz zoroa,
Sardine burue baño
Oba dok olloa.

Mundu guztian zer jazoten dan jak'teko, irakurri EUZKADI egunoro, eta EUZKADI sasoiz artzeko berialaxe arpidedundu.

Zeintxotxikerren amantzako
Erri gogorra Orozko,
Txoriek Txirrist eindayeneko
Artayorran yoan bearko.
Bilbora bideetan
Amak alabea,
Salduko dabela
Bere saladea.
Ama buruen mindot,
Ez esan aiteri,
Txomintzo auzokoa
Gustetan yat niri.
Eguzkie yoan da
Bere amagana,
Bier etorriko da
Denpora ona ba-da.
Zubi txiki bet pasaute
Dago neure etxera bidea,
Baidin ba-dozu borondaterik,
Ezdago bide luzea.
Gorbai altuen edurre,
Bota surtera egurre,
Alaba galanten amak
Mutil anterren bildurre.
Batobat akabau te
Bigarrena asi,
Alegrentsi onetan
Gure naunke bizi.
Iturrire yoan da-ta
Laster da etorri,
Baragarrien bat
Topau ezpalei.
Iturri urrinean
Ure dago freskoa,
Angoxe urek egin da
Dauket katarroa.
Mutil txameline
Artzean ba-dozu,
Astean iru zurre
Seguru dituzu,
Astean iru zurre...
Sapatuen beti,
Domekan okelea
Auzoan ikusi.
Begiak baltzak-baltzak
azala zurie,
Munduen askok dauko
Zeure enbidie.
Larrosa mayetzeko
iminten saitut kontuen
Batek ezetz esan arren
Asko dagoz Munduen.
Ibili ta erabili
Ezin dot eralgi
Yoan errotara ta
Saye dot ekarri.

GOBIERNO CIVIL

El gobernador está dispuesto a proceder enérgicamente contra los elementos extremistas

Han llegado de fuera elementos perturbadores

Ayer mañana visitó al gobernador civil el alcalde de la villa. Ambos salieron juntos poco después del Gobierno civil para ver la caja que fué hallada el día anterior en la iglesia de San Vicente con doce cartuchos de dinamita y en las circunstancias que dimos a conocer ayer a nuestros lectores.

Al regresar al Gobierno civil, el señor Martínez de Aragón recibió a los periodistas, a los que confirmó que acababa de ver la caja en cuestión. Del examen de ella sacó la impresión de que había sido colocada probablemente para producir alarma, pues por la forma en que se hallan colocados los cartuchos, flojos dentro de la caja, no parece que se intentaba definitivamente volar el templo. De todas las maneras, y fueran los que fueren los propósitos de los que llevaron a cabo esta maniobra criminal, el gobernador se mostró desagradablemente impresionado por el hecho, y así lo mostró a los periodistas.

—Ya sé que en Bilbao no tienen ambiente estas maniobras condenables; pero no por eso deja de preocuparme este hecho, porque viene a demosrar que hay aquí elementos peligrosos para el orden social. La Policía está trabajando para esclarecer el hecho, y excuso decirles cuánto me agradaría que quedase en claro y pudiera detenerse a los culpables.

Abundando en su creencia de que hay en Bizkaya elementos peligrosos para el orden, que no dudan en entregarse a extremismos reprobables, añadió que sabía que habían llegado algunos de estos elementos de fuera con este fin de producir perturbaciones y, muy principalmente también, para sabotear a la Unión General de Trabajadores y a las organizaciones obreras socialistas y aun otras de carácter solvente por su consecuencia y disciplina.

—Estoy dispuesto —siguió— a proceder enérgicamente con estos elementos extremistas, cuyas campañas y coacciones no pueden tolerarse. Serán expulsados de Bizkaya cuando no justifiquen debidamente su estancia aquí y demuestren que están trabajando seriamente para ganarse la vida, y, en caso contrario, serán encarcelados. De ninguna manera he de permitir que se sabotee a aquellas organizaciones empleando sistemas al margen de la ley. La Unión General de Trabajadores y las organizaciones obreras son masas solventes y disciplinadas, conscientes de su misión social y una de las bases más sólidas de la república, y no he de consentir que esos elementos empleen medios ilegales para quebrantarlas. Pueden ustedes decirlo así; que procederé en este sentido con la máxima energía.

Añadió, respondiendo a preguntas de los periodistas, que los elementos encarcelados en Larrinaga que se habían propuesto declarar la huelga del hambre, cesaron ya en su actitud. Algunos de ellos, unos diez o doce, se avinieron a salir de Bizkaya y ya lo han hecho. Quedan unos veintiocho o treinta encarcelados todavía a disposición de la autoridad gubernativa.

Recibió el gobernador la visita de los alcaldes de Barakaldo, Sestao y Santurze, a los que había citado previamente, a fin de darles instrucciones sobre la norma de conducta a que deben ajustarse en lo que se refiere a su intervención en los conflictos del trabajo que se planteen en sus respectivas localidades.

—Les he resaltado—explicó el gobernador—la autoridad legítima de que están investidos como alcaldes por sufragio popular que son, diciéndoles que, como tales autoridades, deben hacer valer su autoridad, procediendo con cierta autonomía, aunque, claro está, sin perder el contacto con la autoridad gubernativa.

Con estas palabras dió por terminada el señor Martínez de Aragón su entrevista con los informadores.

UN INCIDENTE

La ostentación de los colores monárquicos en la Juventud Tradicionalista originó la protesta del público en la calle de la Ronda

En la calle de la Ronda se suscitó ayer mañana un incidente, que, por fortuna, no llegó a alcanzar caracteres de gravedad.

Cerca de las diez algunos transeúntes observaron que en un balcón de los locales de la Juventud Tradicionalista, sitos en el número 28, piso segundo de dicha calle, había sido colocada una colgadura con los colores de la antigua bandera española monárquica. En el parte cursado a los jefes de la Guardia municipal por sus subordinados se dice que había sido enarbolada una bandera de aquellos colores, haciéndose constar que el subdirector de "El Nervión", señor Sobrino, declaró que lo que se había puesto en el balcón había sido una colgadura y no una bandera.

El público comenzó a protestar ante la presencia de los colores citados en el balcón, originándose un pequeño tumulto, durante el cual se aglomeró algún público debajo de los locales de la Juventud Tradicionalista.

En vista de estas protestas, algunos de los que se encontraban en los citados locales procedieron a retirar del balcón la colgadura o bandera, terminándose con esto el incidente y retirándose el público que allí se había aglomerado.

La bandera o colgadura estuvo expuesta durante unos cinco minutos aproximadamente, según la referencia del guardia municipal que prestaba servicio en la mencionada calle y que intervino en el incidente, intervención que se limitó a consignar lo ocurrido y oir las manifestaciones de algunos de los testigos, pues, como ya decimos, la colgadura o bandera fué retirada en seguida en vista de las protestas que había originado.